# Osakidetzaren Memoria

# 2 0 1 8

## Emaitza nagusiak

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# AURKEZPENA

2018 urtean, Osakidetzak hogeita hamabost urte egin ditu. Urte hauetan guztietan, helburu batek batu gaitu: pertsona guzti-guztiei osasun-sistema publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa bermatzea.

Osakidetza osasun arretaren erreferentea da, gaur egun, eta euskal gizartearen babesa dauka. Izen ona, bere langileen dedikazioak eta konpromisoak eman dio Osakidetzari. Eta horrez gain, baita urteetan zehar egindako kudeaketa, antolaketa eta finantzaketa egokiak ere. Izan ere, horiei esker bihurtu baita Euskal Osasun Zerbitzua "euskal gizarte osoaren arrakasta". Hitz horiek Urkullu Lehendakariak egin zituen Donostiako Kursaalen azaroaren 27an, 35. Urteurrenaren ekitaldiaren itxierako hitzaldian.

Osakidetzaren emaitzen Memoria hau pasa den urtearen lekuko izateko sortu da, eta horrexegatik, lortutako emaitzen ikuspegi zabala eman nahi da bertan, erakunde osoaren ahaleginarekin, Memoriak berak lagundu behar digulako etorkizunari begiratzen orainaren ikuspegi bateratua abiapuntu hartuta.

Memoriaren lehen zatian hamar mugarri aipatzen dira, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren beraren eskutik gobernuaren ekintza-eremuan 2018an erdietsi direnak.

Jarraian, testuinguruaren azterketaren bitartez, euskal gizarteak osasuna nola ulertu eta hautematen duen azaltzen da, bai eta Osakidetzak ematen duen asistentziaren kalitatearen zer balorazio egiten duen ere. Faktore horiek ezin garrantzitsuagoak dira, azken hogeita hamabost urteotan egindakoaren eta lortutakoaren norainokoa ulertzeko.

Memorian aurrerago eginez, emaitza nagusiak ikus daitezke, hiru arlo handitan banatuta: 1) Pertsonak, jarduera asistentzialarekin lotutako alderdiei buruzkoa; 2) Jasangarritasuna; bertan aipatzen dira erakundearen aktiboekin zerikusia dutenak, hau da, profesionalekin, baliabide ekonomikoekin eta inbertsioekin; 3) eta, azkenik, Berritasuna, teknologia berrien eta I+G+b jardueren bitartez zerbitzuak hobetzearekin lotura duten gaien ingurukoa. Datu guztiak bost urteko bilakaerarekin eman dira, azterketa bera bilakaera-testuinguru horretan kokatzen laguntzen duten joerak identifikatzeko asmoarekin.

Amaitzeko, Memoriaren ondorioak 20 puntutan bildu dira: 2018an lortutako emaitzen alderdi nabarmenenak aipatzen dira bertan.

Hori guztia esanda, Memoria honetan aurkeztutako emaitzak aukera bezala ikusten ditugu. Hiru hamarkadatan baino gehiagotan lortutako kalitatearen eta gizartearen aintzatespenaren akuiluari esker, etorkizunera begiratu dezakegu, helburu hau izanda: erakundea egokitzea, osasunaren arretak eta zainketak datozen urteetan euskal gizarteari ekarriko dizkioten erronka berriei erantzuteko gai izan dadin.

**Jon Darpón Sierra**
Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua

1. 2018KO 10 MUGARRI ........ 7

2. INGURUNEAREN EMAITZAK ........ 11

Bizi-itxaropena ........ 12

Euskal gizartearen balorazioa ........ 14

3. PERTSONEI BURUZKO EMAITZAK ........ 21

Asistentzia-eremua ........ 22

Kontsultak
Ospitaleratzea
Ebakuntza kirurgikoak
Proba osagarriak
Itxarote-zerrendak
Osasun mentala
Larrialdiak
Emergentziak
Transfusioak eta donazioak
C hepatitisa eta GIB
Pazientearen segurtasuna

Detekzio- eta prebentzio-programak ........ 36

Gripea
Minbizia
Haurren gaixotasunen prebentzioa

4. JASANGARRITASUNEKO EMAITZAK ........ 41

**Eremu ekonomiko-finantzarioa** ........ 42

Osasun-aurrekontu publikoa *per capita*
Osakidetzaren aurrekontua
Inbertsioak

**Pertsonen eremua** ........ 45

Egiturazko plantilla
Enplegu Publikoko Eskaintza
Berdintasuna
Euskara
Langileen asebetetzea
Lan-istripuak
Absentismo-tasa

5. BERRIKUNTZARI BURUZKO EMAITZAK ........ 51

Errezeta elektronikoa
Historia kliniko bateratua
Osasun-karpeta
Webgunearen bidez hartutako hitzorduak
Osasun Aholkua
Irudi medikoen digitalizazioa
I+G+B
Kudeaketaren berrikuntza

6. ONDORIOAK ........ 61

**ERANSKINAK** ........ 66

Galdu-irabazien kontua
Behin-behineko balantzea
Inbertsio-proiektuen zerrenda
Osasun-zerbitzuen erakundeak



2018ko

# 10 MUGARRI

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# PERTSONAK

## 1

**Minbizia**: uztailean **Umetoki-lepoko minbiziaren baheketarako programa** abiarazi zen Araban, 25 eta 65 urte arteko emakumeentzat, eta 2019an Bizkaira eta Gipuzkoara zabalduko da. Abenduan **Euskadiko Onkologia Plana 2020** onartu da eta **Onkologikoa Osakidetzarekin lotzeko hitzarmena** sinatu da. Azken horrek Onkologikoko eta Donostialdeko ESIko asistentzia-zerbitzuen integrazio funtzionala egituratzen du, Gipuzkoako onkologia-eskaintza bateratuz.

Amancio Ortega Fundazioarekin sinatutako hitzarmenari esker **5 azeleragailu lineal eta mamografo bat** erosi dira, minbiziaren diagnostikoa eta tratamendua egiteko.

## 2

Otsailean **Arreta Soziosanitarioko 2020ko Lehentasun Estrategikoak** aurkeztu ziren, osasun-sistemako ekitatean aurrera egiteko helburuarekin, pertsonen behar soziosanitarioei erantzun eraginkorra ematen zaiela bermatuz, batik bat kolektibo ahulenei dagokienez.

## 3

Martxoan **Pazientearen Segurtasun Estrategia 2020** aurkeztu zen, sei ekintza-ildo berrirekin, pertsonentzako arriskuak ahalik eta gehien murrizteko helburuan aurrera egiten jarraitzeko.

## 4

Uztailean **Euskadiko 2020ko Lehen Mailako Arretako Estrategiari** buruzko oinarri-dokumentua aurkeztu zen, 2019an abian ipiniko diren neurri jakin batzuen bidez lehen mailako arreta indartu eta hobetzeko asmoz.

# JASANGARRITASUNA

**5**

Urrian, **Eibarko Ospitale berria** zabaldu da. Azpiegitura horrek, 31 milioi euroko inbertsioa eginda, 75.000 pertsonari ematen die zerbitzua, 97 profesionalen eskutik.

**6**

Ekainean bloke kirurgikoa eta ospitaleratze kirurgikoko solairua martxan ipini ziren **Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalean**.

**7**

Martxoan abian jarri zen **hemodinamikako** areto berria Galdakao-Usansoloko Ospitalean, uztailean Basurtuko Unibertsitate Ospitalean eta abenduan Gurutzetakoan, gaixotasun kardiobaskularren diagnostiko eta tratamenduan erabilitako teknologia eguneratzeko asmoarekin.

**8**

Uztailaren 3an Osakidetza ente publikoaren **erakunde sanitario integratuak (ESI)** arautzeko dekretua onartu zen. Egitura organiko bateratuen bidez, Euskadin hedatutako asistentziarako antolakuntza-eredu berria bermatu da horrela. Erakunde horietan, lehen mailako arreta eta ospitaleko arreta integratzen dira, Autonomia Erkidegoan Osakidetzaren asistentzia-arreta emateko erabiltzen diren lurralde-eremu bakoitzerako.

# BERRIKUNTZA

**9**

Urtarrilean **errezeta elektronikoaren elkarreragingarritasuna** jarri zen martxan; hari esker, Osakidetzako osasun-txartela erabil daiteke gainerako autonomia-erkidegoetako farmazietan, eta **800.000** errezeta baino gehiago eman zaizkie 2018an beste autonomia-erkidego batzuetan bizi diren Euskadiko herritarrei.

**10**

Ekainean **BioCruces** erakundearen eraikin berria zabaldu zen; 20 milioi euroko inbertsioa gauzatu da hura altxatzeko eta, Bioaraba, Biodonostia eta Kronikgunerekin batera, Euskadiko osasun-ikerketako institutuen sarea osatuko du.



# INGURUNEAREN
emaitzak

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

**Bizi-itxaropena** gertu dago 2020rako 84 urtekoa izatera iristeko Herrialde Helburutik. Horrenbestez, Europar Batasuneko herrialdeen buru da Euskadi bizi-itxaropenari dagokionez.

## Bizi-itxaropena, jaiotzean

2020rako Euskadiko helburua: **84**




*Iturriak: Eustat, INE eta Eurostat*

## Bizi-itxaropena, jaiotzean. Emakumeak




*Iturriak: Eustat, INE eta Eurostat*

## Bizi-itxaropena, jaiotzean. Gizonak




*Iturriak: Eustat, INE eta Eurostat*

## EB konparazioa, 2016




*Iturriak: Eurostat*

**Euskal gizartearen balorazioa** gako hauen araberakoa da: 1.) Osasuna ongizate pertsonaleko faktore nagusi gisa hartzea; 2.) Osasunak herritarren kezken artean agertzen diren arazoen zerrendan duen beheranzko joera; 3.) Norberaren osasunaren pertzepzio ona; 4.) Euskadiko osasun-arretaren kalitatearen balorazio oso ona.

## Zoriontsu izateko faktore garrantzitsuenei buruzko iritzia*




*Ehunekoen baturak ez du 100 ematen, bi erantzun eskatzen zirelako
Iturria: 55. Euskal soziometroa (2014)

Euskadiko herritarrentzat, osasuna ez dago Euskadiko **arazo nagusien** artean. Konparazioa egiteko, Euskadin 12. posizioan ageri da; Estatuan, berriz, 5. posizioan.

## Euskadiko arazo nagusiak




*Iturria: 68. Euskal soziometroa (2018)*

Gainera, arazo pertsonalen artean ere, azken urteotako mailarik baxuenetan dago.

## Arazo pertsonal nagusien bilakaera




*Iturria: 68. Euskal soziometroa (2018)*

Europako herrialdeekin alderatuta, herritarrek **euren osasunaren pertzepzio onena** dutenen artean dago Euskadi.

## Osasun pertsonalaren pertzepzioa




*Iturria: 55. Euskal soziometroa (2014)*

Osakidetzako erabiltzaileen balorazioen artean, % 60tik gora dira **asistentziaren kalitate globala** bikaina dela diotenak. Lehen mailako arretaren balorazioa 17,2 puntu igo da 2008tik; larrialdiena, 17,6 puntu; eta akutuen ospitaleratzeena, 10,6 puntu.

## Gogobetetze global bikaina



Gogobetetze global positiboak (hau da, balorazio ona, oso ona eta bikaina batuta lortzen denak) % 90 gainditzen du kasu guztietan.

## Gogobetetze global positiboa








# PERTSONEI

## buruzko emaitzak

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetzak Euskadiko herritarrei ematen dien arreta bi atal handitan sailkatuko dugu:

**- Asistentzia**

**- Gaixotasunak prebenitzeko eta detektatzeko programak**

# ASISTENTZIA

2018an, Osakidetzako zerbitzuek 16 milioi **kontsulta** baino gehiago jaso zituzten; horrela, % 5,5 igo da kontsulten kopurua azken bost urteotan.

## Kontsultak GUZTIRA



Joeren ikuspegi zabalago bati erreparatuta, 2008tik gehien igo diren kontsulta motak honako hauek izan dira: ospitalekoak, % 74,6ko igoerarekin, eta telefono bidezkoak, 506.354 izatetik 2,1 milioi izatera iritsi direnak.

## Kontsultak 2008-2018 aldian




Mediku bakoitzak artatutako kontsulten batezbestekoa, ez-presentzialak eta etxekoak kontuan hartuta, egonkor mantendu da familia-medikuntzan eta pediatrian (28 eta 21 inguru, hurrenez hurren).

## Eguneko kontsultak mediku bakoitzeko




## Kontsulta mediko bakoitzeko minutuak



**Ospitaleratzeari** dagokionez, ospitaleko 274.000 alta baino gehiago eman zaizkie 197.731 pazienteri. Nabarmentzeko modukoa da etxeko ospitalizazioaren goranzko bilakaera, gaixo kronikoei beren familiaren ingurunean arreta jasotzeko aukera ematen diena.

Batez besteko egonaldiaren iraupena murriztu egin da akutuen ospitaleetan eta egonaldi ertain eta luzekoetan, eta ez da igoerarik erregistratu alta jaso eta hurrengo 30 eguneko berrospitaleratzeen ehunekoan. Egonaldiaren iraupenak gora egiten du etxeko ospitalizazioan.

## Ospitaleko altak







## Batez besteko egonaldia (egunak)




## Berriro ingresatutakoen ehunekoa



**Programatutako ebakuntza kirurgikoek** gora egiten jarraitzen dute eta azken urtean % 3,7ko igoera izan dute. 2008tik hona izandako joerari erreparatuta, ikusiko dugu gorakada esanguratsua izan dutela, % 44ko igoera izan baitute ospitaleetako ebakuntza programatuek, eta % 26,6koa kirurgia handi anbulatorioko esku-hartzeek. Nabarmentzekoa da, halaber, 65 urtetik gorakoei egindako ebakuntzek % 12,9 egin dutela gora azken bost urteetan; programatutako ebakuntza guztien % 50 dira dagoeneko.

## Ebakuntza kirurgikoak




**Prozedura ez-kirurgikoek (PEK) eta konplexutasun handikoek** % 24,5eko igoera izan dute; ebakuntza-gelatik kanpo eta ospitaleratzerik gabe egiten diren esku-hartzeak dira, besteak beste, eremu hauetan: kardiologia, erradiologia interbentzionista, baskularra, mina eta, batik bat, oftalmologia.

## Prozedura ez-kirurgikoak (PEK) eta konplexutasun handikoak



Modu anbulatorioan eginiko **proba osagarri** konplexuak % 6,9 igo dira azken urte honetan. Igoera lau proba motetan gertatu da, eta bereziki nabarmentzekoak dira OTAk, % 10eko gorakada izan baitute.

## Proba diagnostiko osagarriak



Erakundean urtero-urtero tentsioa eragiten duen kezketako bat **itxarote-zerrendak** dira. Ondoko grafikootan ikusten denez, itxarote-zerrendak kontrolatu eta hobetzeko Osakidetzaren planari esker urtez urte joera egonkor baten barruan mantendu dira. Estatuan eta beste autonomia-erkidegoetan, aldiz, urtero aldakuntza handiak izan dituzte.

Halaber, plan horrek aukera eman digu 2018an, aurreko urteetan bezalaxe, pazientearen bermeen dekretuan aurreikusitako epeak betetzeko (65/2006 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Eusko Jaurlaritzak 2006an onartutakoa).

## Ebakuntza kirurgikoen itxarote-zerrenda
Batez besteko atzerapena, egunetan




## Ospitaleko kontsulten itxarote-zerrenda
Batez besteko atzerapena, egunetan




## Proba osagarrien itxarote-zerrenda
Batez besteko atzerapena, egunetan



Autonomia-erkidegoen arteko alderaketa egitean, argi geratzen da Euskadiko itxarote-zerrendak gainerako autonomia-erkidegoetakoak baino laburragoak direla, itxaronaldi kirurgikoari eta espezialisten kontsultara joan arteko itxarote-denborari dagokionez (horiei buruzkoak dira orain arte argitaratu diren azterlanak).

2018an bete egin dira itxarote-zerrenden helburu hauek: itxarote-zerrenda onkologikoa ez izatea 30 egunetik gorakoa eta gainerako ebakuntzena ez izatea sei hilabetetik gorakoa.

## Itxarote-zerrendak. Ebakuntza kirurgikoak Autonomia-erkidegoen arteko konparazioa, 2017




*Iturria: OSNren funtsezko adierazleak. http://inclasns.msssi.es/main.html*

## Itxarote-zerrendak. Arreta espezializatuko kontsultak Autonomia-erkidegoen arteko konparazioa, 2017




*Iturria: Euskadi: Osakidetzaren jarduera-balantzea eta itxarote-zerrendak, eta Espainia: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa: OSNren funtsezko adierazleak*

Osakidetzaren **osasun mentaleko** sareak 2018an 90.000 paziente baino gehiagori eskaini die arreta, bai eta ospitaleko 1.593 alta eman ere.

## Osasun Mentaleko pazienteen kopurua




## Osasun Mentaleko ospitaleko altak




## Osasun Mentaleko kontsulten kopurua



2018an ia 2 milioi **larrialdi** izan ditugu (egunean 5.000 baino gehiago). Urterik urte, etengabe igotzen ari da haien kopurua, eta 2014tik hona % 9ko igoera metatua izan dute. Gora egin dute bai ospitaleko larrialdiek eta bai osasun-zentroetako Etengabeko Arretarako Guneetakoek ere (EAG). Azken horien jarduera, hain zuzen ere, ia % 55 igo da azken hamar urteetan, eta herritarren eguneroko larrialdi-beharrei erantzun diete.

Ospitaleetan, % 65 baino gehiago izan dira aurten ere triaje-sistemetan arin eta oso arin gisa sailkatutako larrialdiak.

## Larrialdiak eta EAG




## Triaje arina eta oso arina ospitaleko larrialdietan



**Emergentziek** 400.000 dei baino gehiago jaso dituzte (egunean 1.000 baino gehiago). Horien ondorioz, 185.286 irteera egin dituzte anbulantziek (egunean 500 baino gehiago), eta 411 irteera helikopteroak.

## Emergentziak




Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroak koordinatutako **transfusioei** dagokienez, odol-emateen kopurua egonkorra izan da azken bi urteetan, eta 2018an 345 emate egin dira egunean.

## Odol-emateak egunean



Organo-donazioei dagokienez, urte arteko aldakuntza handiagoa izan ohi dute. Hezur-muinaren donazioek beherakada nabarmena izan dute 2018an, hain zuzen ere 40 urtera jaitsi delako horrelako donazioak egiteko gehieneko adina.

## Organo-donazioak




*40 urtera jaitsi da donazioa egiteko adinaren muga




2018an, 64 organo eman dira milioi biztanleko. Tasa hori Osasunaren Mundu Erakundeak bikaintzat ezarritako 40 donazioetatik gorakoa da, eta Estatuko zein Europar Batasuneko beste herrialdeetako batez bestekoa baino handiagoa da argi eta garbi, argitara emandako azken datuen arabera.

## Emaile errealak / milioi biztanle. Konparatiboa



**C hepatitisari** dagokionez, programak adierazten du % 50etik gora igo dela arreta jaso duten pazienteen kopurua, sendatutakoen ehunekoa % 97koa dela eta aurrekontua, oraindik ere handia izan arren (17 milioi euro baino gehiago), nabarmen murriztu dela 2016tik, sendagaien prezioaren jaitsieraren ondorioz.

## C hepatitisa










**GIBa duten pazienteen** tratamenduaren kasuan, nahiz eta tratatutako paziente-kopurua handitu den, programa horri zuzendutako aurrekontua asko murriztu da, medikazioaren (antierretrobiralen) prezioa txikitu delako eta tratamenduko protokoloak optimizatu direlako.

## GIBdun pazienteei tratamendua







*2018ko datuak behin-behinekoak dira*

**Pazientearen segurtasunaren** alorrean, 2018an Pazientearen Segurtasun Estrategia 2020 onartu da. Dokumentu horretan, neurri berriak deskribatzen dira pertsonen arriskuak ahalik eta gehien murrizteko helburuan aurrera egiten jarraitzeko.

Neurri horietako bat Osakidetzako profesionalen kontzientziazioa da, eguneroko beren lanean gertakari baten berri badute hura jakinaraz dezaten. Kasu gehienetan gertakari horiek ez diete inongo kalterik egiten pazienteei, baina funtsezkoak dira segurtasun-sistemaren hobekuntza potentzialak identifikatzeko. Azken bost urteotan, jakinarazpenak % 30 baino gehiago hazi dira.

Ospitaleko altaren ondoren presio-ultzerak (PU) edo ospitaleratze-aldian infezkioak dituzten pazienteen ehunekoen ratioei dagokienez, egonkor izan dira azken bost urteotan.

## Pazientearen segurtasuna









# GAIXOTASUNAK PREBENITZEKO ETA DETEKTATZEKO PROGRAMAK

**Gripearen** aurkako kanpainan 2018an 368.897 pertsonari eman zaie arreta, % 57,2 65 urtetik gorakoak. Gastuaren guztizko aurrekontua milioi 1 eurokoa izan da.

## Gripearen aurkako txertoa









Koloneko eta bularreko **minbiziaren** baheketa-programetan parte hartu duten pertsonen kopuruak gora egin du 2018an (% 10,3 kolonekoan ea % 3,3 bularrekoan). Bi kasuetan, helburuko populazioaren % 70 baino gehiagorengana iritsi dira programak, eta modu konstantean eutsi zaio bakoitzean hautemandako kasu-kopuruari.

2018an umetoki-lepoko minbiziaren baheketa abiarazi da Arabako lurraldean, eta 2019an Bizkaira eta Gipuzkoara zabalduko da.

Baheketa-prozesu horiek funtsezkoak dira minbizi-tipologia ohikoenak garaiz hautemateko; haiei esker, gaixotasun horretan biziraupen-tasa handiena duten herrialdeen artean dago Euskadi. 2018an bularreko 656 minbizi-kasu hauteman dira programa hauen bidez, eta koloneko 2.750.

2019ko urtarrilean argitaratutako Osakidetzako profesionalen azterlan baten arabera, kolon-ondesteko minbiziaren baheketak % 20 igotzen du gaixotutakoen biziraupen-tasa.

## Koloneko minbiziaren baheketa









# Bularreko minbiziaren baheketa









**Haurren prebentzio-programek** joerari eutsi diote 2018an: Osakidetzako ospitaleetan jaio diren haurren % 100i egin zaizkie metabolopatien (orpoaren proba) eta gorreriaren probak, eta % 85enganaino iritsi dira Down-en sindromearen eta beste kromosopatien jaio aurreko baheketa (kasu horretan, Euskadiko haurdunaldi guztiak dira erreferentzia).

Haurren Hortzak Zaintzeko Programari (PADI) dagokionez, 7 eta 14 urte bitarteko haurren % 69ri eman die estaldura 2018an. Horrela, 2,6 puntuko igoera izan du 2017arekiko, eta lagundu du Euskadi haurrek txantxar gutxien duten herrialdeen artean egon dadin.

Haurren txertaketako programek estalduraren % 90 gainditzen dute kasu guztietan eta dute 10 milioi baino gehiagoko aurrekontu bat.

## Haurrak artatzeko programak













## Haurrak Txertatzeko Programak (estaldura ehunekoa eta aurrekontua)










# JASANGARRITASUNEKO emaitzak

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

# EREMU EKONOMIKO-FINANTZARIOA

**Biztanle bakoitzeko osasun-aurrekontua** % 3,7 hazi da 2018an, eta pertsona eta urteko 1.733 euroraino iritsi da. Zenbateko hori Estatuko batezbestekoa baino % 32 altuagoa da, eta Euskadi autonomia-erkidegoen arteko lehen postuan kokatzen du.

## Osasun-aurrekontu publikoa *per capita*




## Autonomia-erkidegoen arteko konparaketa, 2018




*Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa*
*Unitatea: Euroak biztanleko*
*Hasierako aurrekontua. 2018. urtea: Behin-behineko emaitzak*

**Osasuneko aurrekontua** 3.677 milioi eurokoa izan da 2018an. Zor publikoaren amortizazioa zenbatu gabe, Gobernuaren guztizko aurrekontuaren % 35,4 da hori, 2017ko % 34,4ren aldean.

**Osakidetzaren aurrekontua** 2.799 milioi eurokoa izan zen 2018an. Azken bost urteotan igotzen joan da urtero, eta 292 milioi euroko igoera metatua izan du aldi horretan, hau da, % 11,6ko hazkundea, 2014ko aurrekontuarekin alderatuta. Diru-sarrerei dagokienez, ia guztiak Osasun Sailak eta Osakidetzak urteko sinatzen duten Programa Kontratuaren bidez lortzen dira.

## Osakidetzaren aurrekontua. Gastuak (M€)




## Osakidetzaren aurrekontua. Diru-sarrerak (M€)



**Inbertsioek** oso hazkunde handia izan dute 2018an, batik bat osasun-teknologiako ekipamenduetan (% 106ko hazkundea), informazio-sistemetan (% 72ko hazkundea) eta obra berrietan (% 17ko hazkundea). Eranskinean zehazten dira inbertsio-proiektu nagusiak.

## Inbertsioak, GUZTIRA (M€)




## Obrak eta instalazioak (M€)




## Ekipamendua (M€)



# LANGILEEN EREMUA

**Egiturazko plantilla** handitu egin da apur bat (97 lanpostu), 2016an Gobernuak erabakitako egiturazko hazkunde handiaren ondoren (695 lanpostu).

## Egiturazko plantillaren bilakaera 2014-2018 aldian




2018an azken urteotako **EPE** handiena deitu da: 3.335 lanpostu eskaini dira, 86 kategoriatan, eta 95.000tik gora pertsonak hartu dute parte. Orain arte 66 kategoriari dagozkion 2.143 lanposturen oposizio-fasearen emaitzak argitaratu dira, eta lehiaketa-fasea ireki da (merezimenduen aurkezpena) oposizioko azterketak gainditu dituzten pertsonentzat.

EPEko ustezko irregulartasunen ondorioz abiarazitako ikerketa deialdiko 72 lanpostu betetzeko hiru kategoriari eragin die. Hirurak etenda daude, dagozkien epaimahaien probak errepikatzeko erabakiari buruzko ebazpen judizialaren zain.

**Emakumeak** Osakidetzako langileen % 78 dira eta gehiengoa osatzen dute zuzendaritza-postuetan eta osasuneko lizentziadunen talde profesionalean, batik bat medikuen artean. Bi talde horietan handitu da gehien emakumeen kopurua azken bost urteetan; horrela, zuzendaritza-postuetan % 57,1etik % 60,2ra igo da 2014 eta 2018 bitartean, eta osasuneko lizentziadunen artean % 53,2tik % 60,1era pasatu da, denbora-tarte berean.

Langile berriei dagokienez, emakumeen presentziak gora egin du eta guztiz nagusi da erizaintzako egoiliarren artean (% 93,2); medikuntzako egoiliarren artean behera egin du, baina oraindik ere emakumeak dira gehienak (% 69,7).

## Emakumeen ehunekoa egiturazko plantillan




## Emakumeen ehunekoa prestakuntza jasotzen ari diren egoiliarren artean



**Euskararen** erabilera Normalizatzeko 2. **Plana** 2013an onartu zen eta 2019ra arte indarrean izango da. Plan horren exekuzioaren ondorioz, azken lau urteetan % 38,9raino iritsi dira derrigorrezko euskara-eskakizuna duten Osakidetzako lanpostuak (10.368 lanpostu), 2020rako % 40ko helburu estrategikotik gertu. Lanpostu horietan dabiltzanen % 72,1ek (7.473 pertsona, guztira) egiaztatu dute jada dagokien hizkuntza-eskakizuna, eta Osakidetzako langile guztien % 40,7k du hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta (10.816 pertsona).

## Euskara Plana 2013-2019






2018an Osakidetzako **langileen gogobetetzea** neurtzeko galdetegi handi bat egin da, 9.882 pertsonaren parte-hartzearekin (plantillaren % 27,6).

Batezbestekoa 6,7/ 10ekoa izan da, hau da, puntuazio altu bat erdietsi da beste erakunde batzuekin alderatuta. Ospitale-eremuen artean alde handirik hauteman ez den arren, galdetegiari esker arreta berezia behar duten eremu batzuk identifikatu dira, batik bat emergentzietan. Aldeak handiagoak dira galdetutako itemei dagokienez, eta arreta berezia eskaini beharko zaie emaitza txikiagoak izan dituztenei eta, batik bat, ESIetako integrazio-prozesuari.

## Asebetetze-maila, jarduera-eremuaren arabera




*Unibertsoa: 35.785 pertsona / parte-hartzearen %: % 27,6 / parte-hartzaileak guztira: 9.882 pertsona*

## Asebetetzea, itemen arabera



**Lan-istripuen** guztizkoa egonkor egon da 2015etik, eta nabarmentzekoa da baja eragin duten lan-istripuak % 16,7 jaitsi direla 2015etik.

## Lan-istripuen bilakaera 2014-2018 aldian




**Absentismo-tasari** dagokionez, nabarmen hazi da, % 29,3 2014tik hona. Horrela, % 7,5eraino iritsi da, eta EAEko administrazio orokorraren batezbestekoaren gainetik dago (% 5,2 2017an, Osakidetzako urte hartako % 6,7rekin alderatuta). Horrek erakusten du arretaz aztertu behar dela ratio hori ESI guztietan 2019an.

## Absentismo-indizea 2014-2018 aldian




esc
tab
caps lock
shift
fn
08:15



# BERRIKUNTZARI
## buruzko emaitzak

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

**Errezeta elektronikoa** da Osakidetzak gauzatutako mugarri teknologiko handietako bat. Haren erabilera % 26,7 hazi da azken bost urteetan: 35 milioi errezeta elektroniko preskribatu dira 2018an, eta 1,5 milioi paziente desberdinek erabili dute. 2018an errezeta hori beste autonomia-erkidego batean bizi diren Euskadiko pazienteek erabiltzeko aukera ezarri da, eta 857.006 errezeta eman dira bide horretatik.

## Errezeta elektronikoa



**Historia kliniko bateratua**, Osakidetzako zerbitzuen % 100ean ezarri ondoren, beste eremu batzuetara ere zabaldu da, Euskadiko pazienteen asistentzia integrala hobetzeko helburuarekin, edozein izanik ere arreta ematen dien asistentzia-eremua. Horrela, 2018an 316 egoitzatara eta itundutako 19 zentrotara zabaldu da historia hori, ia estalduraren % 100 erdietsiz.

Erizainek ospitaleratze-eremuetan pazientearen ohe ondoan gailu mugikorrak (tabletak) erabiliz historia klinikoak kontsultatzeko aukerari dagokionez, 2018an % 100eko ezarpena erdietsi da Osakidetzaren sareko ospitaleetan.

## Historia Kliniko Integratua






**Osasun-karpetak** aukera ematen die herritarrei beren osasunari eta tratamenduari buruzko informazioa eskuratzeko. Igoera nabaria izan du azken urte honetan, % 34 igoz eta zerbitzuaren 53.973 erabiltzaile bilduz. % 43 igo da, halaber, kanal horren bidez pazienteek kontsultatutako txostenen kopurua, 552.382raino iritsi arte.

## Osasun-karpeta




## Osasun-karpeta: Sarbideak



**Webguneko hitzorduen** kopuruak erakusten du sistemak onarpen-maila ona izan duela, haren erabilera bikoiztu egin baita azken bost urteotan, 2018an kanal horren bidez eskatutako hitzorduak 2.215.162 izan direlarik.

## Webguneko hitzorduak




Osakidetzako Emergentzien Zerbitzuak kudeatzen duen **Osasun Aholkuak** ere goranzko joera izan du azken bost urteotan. Horrela, 2018an 186.779 dei jaso dira (egunean 500 baino gehiago), eta horien % 80 baino gehiago zuzenean ebatzi ditu zerbitzuaz arduratzen den erizain taldeak, kontsulta beste zerbitzu batengana bideratu behar izan gabe.

## Osasun Aholkua






**Irudi medikoen** eta proba osagarrietako azterketen **digitalizazioak** % 9,4 egin du gora (% 47,4ko igoera azken bost urteetan), eta urteko 800.000raino iritsi da. Horren ondorioz, erakundeak irudi eta proben gordailu digital erraldoi hori tratatu eta erabiltzeko aukera emango duten proiektuak garatu beharko ditu 2019an.

## Erradiologiako azterlanen digitalizazioa GUZTIRA




## Erradiologiako azterlanen digitalizazioa tipologiaren arabera



**I+G+B arloarekin** lotutako jarduerak % 3,4 egin du gora 2018an. Nabarmentzekoa da garapen bidean diren proiektuen kopurua (saiakuntza klinikoak barne) 2,5 aldiz hazi dela azken bost urteetan, eta aipagarria da Euskadiko enpresekin elkarlanean egindako lankidetza-proiektuen hazkundea, azken lau urteetan 5etik 59ra pasatu baitira.

## Eginbidean diren I+G+B arloko proiektuak




*Behin-behineko datuak*

Proiektu eta ikerketen **emaitzei** dagokienez, gora egin dute, hala bikaintasunezko argitalpenetan aurkeztutako lanen kopuruari nola Osakidetzako zorro teknologikoko patente, diseinu eta modeloen kopuruari dagokienez. Gora egin du, halaber, ikerketa-proiektuetarako autonomia-erkidegoko, Estatuko eta Europako administraziotik lortutako finantzaketak.

## I+G+B arloko emaitzak










*Behin-behineko datuak*

Azkenik, **kudeaketaren berrikuntzaren** gaiari helduta, Osakidetzako zentro eta erakunde sanitarioek kudeaketa aurreratuaren ereduko 12 aitortza jaso dituzte 2018an; horien artean, nabarmentzekoa da Donostialdeko ESIak pertsonen kudeaketaren alorrean lortutako kudeaketa aurreratuaren saria.

## Kudeaketa aurreratuaren ereduko aitortzak (KAE)







# ONDORIOAK

Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetzak bere jarduna hiru faktore hauek baldintzatutako **ingurune** batean gauzatzen du: Munduko **bizi-itxaropen** altuenetakoa duen populazio bat (Japonia aurretik, bakarrik); **osasuna** bere ongizate pertsonalaren elementu nagusi gisa **baloratzen duena** eta osasuna Euskadiko arazo nagusien artean sailkatzen ez duena.

Ingurunea definituta, 2018ko emaitzei eta azken bost urteetako bilakaerari erreparatuta, **ONDORIO** hauek zerrendatu daitezke, 20 puntutan laburbildurik.

# PERTSONAK
## (Jarduera asistentziala)

**1.** Osakidetzak **94.000 paziente artatzen ditu egunero**: 60.000 lehen mailako arretan eta 34.000 ospitaleko arretan. Guztira, 16 milioi kontsulta baino gehiago artatzen ditu urtean.

Jarduera asistentzialaren kalitatearen balorazio positiboa ematen dute % 95ek baino gehiagok (bertan sartzen dira balorazio ona, oso ona eta bikaina ematen dutenak), eta **% 60tik gora dira zerbitzua bikaina dela uste dutenak**. Azken horien ehunekoak 10 puntu baino gehiago irabazi ditu 2008tik ospitaleetako arretan, 17 puntu baino gehiago larrialdietan eta 18 puntu baino gehiago lehen mailako arretan.

Etorkizunean, emaitza horiei eutsi eta hobetzeko beharrezkoa izango da **Lehen Mailako Arretaren Estrategia** bat garatzea, 2018an definitutako oinarrietatik abiatuta. Lehen Mailako Arretak gero eta tentsio gehiago jasaten ditu, hainbat faktoreren eraginez; besteak beste, jardueraren gorakada eta zentro-sarea profesionalez hornitzeko zailtasuna handitu izana.

**2.** Populazioaren behar kirurgikoek **% 3,7 egin dute gora azken urtean eta % 28 baino gehiago azken bost urteetan**, batik bat 65 urte baino gehiago dituzten herritarren artean, programatutako ebakuntzen % 50 haiei egiten baitzaizkie.

Joera hori areagotu egingo da datozen urteotan; populazioa zahartzen ari delako, batez ere. Hori dela eta, zinez garrantzitsua da areagotzea Osakidetzak **Konplexutasun Handiko Prozedurak** ebakuntza-gelatik kanpo egiteko duen gaitasuna, asistentzia-eremuetan, arrisku gutxiagorekin eta gero eta eremu gehiagotan (kardiologia, oftalmologia, baskularra... ). 2018an prozedura horiek % 24,5 ugaritu dira.

Oso datu esanguratsua itxaron-zerrenda mantendu izana da, bai termino kuantitatiboetan, zein kualitatiboetan ere (batez besteko atzerapena) eta bereziki eskariaren hazkundea egonik azken urteotan mantendu dugun joera hori.

**3.** Ospitaleetako egonaldiaren iraupena **murrizten ari da progresiboki, zainketen eraginkortasunari eragin gabe**. Izatez, ospitaleko alta jaso eta hurrengo 30 egunetako berrospitaleratzeen maila baxua da, erlatiboki, eta ospitaleko egonaldiak luzeagoak ziren garaikoaren antzekoa.

4. Osakidetzak **5.287** larrialdi artatzen ditu **egunero**. Arreta EAGetan jaso duten larrialdien kopuruak lehen aldiz gainditu du ospitaleetako zerbitzuetan arreta jaso dutenena, herritarrak EAGen erabilera egokiagoa egiten ari diren erakusgarri. EAGek ebazteko gaitasun oso handia dute, **bertan jasotako larrialdien % 92 *in situ* konpontzen direlako**, hau da, ospitalera bideratu behar izan gabe.

Hala eta guztiz ere, badago hobetzeko tarterik, ospitaleetan jasotzen diren larrialdien % 65 arinak edo oso arinak direlako oraindik ere.

5. Artatutako osasun mentaleko pazienteen kopurua **% 2,1 handitu da azken urtean**. Gaixotasun horien agerpenean (depresioa, antsietatea, adikzioak, nahasmendu obsesibo-konpultsiboak...) badute eraginik biztanleriaren zahartzeak eta horrekin lotutako gaixotasun mentalek (dementziak, loaren nahasmenduak...). Hori dela eta, Osakidetzako Osasun Mentaleko Sareak **milioi bat kontsulta eta prozedura baino gehiago** artatu ditu 2018an.

6. Emergentzietara egindako deien kopurua **% 7,9 hazi da 2018an**; hortaz, **1.208 dei jaso dira egunero**, eta **anbulantziek 507 irteera egin behar izan dituzte egunean**.

